

Gaur duela 33 urte Jon Errezuma eta Joan Monteagudo eusko gudariak erail zituen Guardia Zibilak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 30/05/2024

Indar errepresiboak bi euskal militanteak tirokatu zituzten. Valentziarra momentuan erail zuten eta gernikarra ospitalerako bidean hil zen, lekualdatzeko momentuan arriskutik kanpo egon arren.

1991ko maiatzaren 29ean, ETAk Guardia Zibilaren aurkako ekintza bat burutu zuen Vic-en(Herrialde Katalanak). Hurrengo egunean, Guardia Zibilak ustezko egileak non zeuden jakin zuen, eta indar berezietako zenbait unitate bidali zituen. Indar errepresibo hauek bi euskal militante tirokatu zituzten, Jon Felix Erezuma Uriarte gernikarra eta Joan Carles Monteagudo Povo valentziarra. Lliça d 'Amunten izan zuten lekuko gertakariak, eta Joan Carles momentuan hil zen.

Jon Erezumak, bestalde, ez zuen zauri hilgarriarik. Tirorik larriena, gibela jotzen zuena, egonkortua izan zen. Granollerseko Ospitalaren txostenaren arabera pazienteak hemodinamikoki egonkor zegoen, eta orduan anbulantzia lekualdaketa antolatu zen, baina Jon hilda iritsi zen Bartzelonara. Jon anbulantzia sartu zen odol nahikorekin eta egonkor, eta odol tantarik gabe iritsi zen Bartzelonara. «Shock hipobolemikoa» da haren heriotzaren arrazoia. Lekuko batzuen arabera, bi pertsona arraro igo ziren anbulantzia horretara, protokolo guztien kontra.

<https://eh.lahaine.org/gaur-duela-33-urte-jon>